

## ESKU-HARTZE SOZIALERAKO GIZARTE TEKNOLOGOA IZAN NAHI DUZU?

Soluzio digitalek eguneroko bizitzako esparru guztietan dute eragina. Izan ere, aisialdirako, harremanetarako, ikaskuntzarako, lanerako, zaintzarako, osasunerako, zerbitzuetarako edota Administrazio Publikora bideratutako programak edo aplikazioak dira, besteak beste. Esku-hartze sozialeko lana ez dago errealitate digital horretatik kanpo.

### **Animatu zaitez Prestakuntza Espezialitate honen lehen edizioan parte hartzera!**

#### ZER IKASIKO DUT?

Prestakuntza Espezialitate honek zuzeneko **esku-hartze sozialean lan egiten dutenei Gizarte Teknologiaiko gaitasunak ematea** du helburu:

- rol edo profil hori dutenengandik lagunduak diren pertsonak soluzio digitaletara hurbiltzea, haien beharretara, denboretara, gaitasunetara eta abarretara egokituta.
- arlo digitalean ahaldundutako profesionalak izatea, eraldaketa digitalerako prozesua posible izan dadin esku-hartze sozialeko erakundeetan.
- gizarte-testuinguruen aniztasuna kontuan hartuko duen teknologia garatu ahal izatea, garapen digitaleko eta zuzeneko esku-hartzean diharduten profesionalen hartu-emanari esker.

#### NORI DAGO ZUZENDUTA?

Arlo sozialean esku-hartze zuzenak egiten dituzten (Gizarte Hezkuntza, Gizarte Lana, Gizarteratzea, etab.) profesionaleri zuzenduta dago.

Gizarte Teknologo gisa jasoko duten prestakuntzari esker, bereganatutako gaitasun digitalak aplikatzeko aukera izango dute haien esku-hartzeetan. Honez gain, aldakorra den errealitate batera egokitzeko gai izango dira. Lan egiten duten erakundearen arabera, ikaskuntza honek erakundearen digitalizazio-estrategian ekarpena egitea ere ahalbidetuko die, esku-hartze sozialeko beste profesional batzuen digitalizazio-prozesuetan laguntzeari esker.

#### **Baldintzak:**

- Erabiltzaile-mailan gutxienezko gaitasun digitalak izatea.
- Ordenagailu eramangarria eta telefono intelijentea (smartphone) edukitzea.

Taldea 15-20 lagunekoa izango da.

## ZER GAI JORRATUKO DITUZU?

### **1. Modulua           Gizarte Esku-hartzea Aro Digitalean**

Lehen modulu honek, gaur egungo esku-hartze sozialaren errealitatean jartzen du arreta; bertan, erakundeetako profesionalak hainbat irtenbide digital txertatzen dituzte beren jardunerako, bai barne-kudeaketako jardunerako, bai erabiltzaileei zuzeneko laguntza emateko.

### **2. Modulua           Zaintza digitala**

Bigarren moduluak zaintza digitala lantzen du, zehazki, eskura dauden soluzio digitalak identifikatzea, bai eta gaikuntza digitalean laguntzen duten baliabideak eta/edo eragileak identifikatzea ere.

### **3. Modulua           Gaitasun eta behar digitalen balorazioa**

Hirugarren moduluak, esku-hartze sozialeko laguntzaileen eta profesionalen gaitasun eta behar digitalak identifikatzeko, ebaluatzeko eta erregistratzeko elementuak ematen ditu, eta, horri esker, abiapuntua zein den jakin daiteke, kasu bakoitzean irtenbide digital egokien erabilera sustatu ahal izateko.

### **4. Modulua           Soluzio digitalen erabilera sustatzea**

Laugarren moduluak, arreta pertsonalizatuko nahiz garapen profesionaleko planetan txertatu beharreko soluzio digitalen erabilera sustatzeko estrategiak eskaintzen ditu. Ezagutzarekin osatzen da, gaur egun erabilgarri dauden hainbat soluzio digitalen praktika aplikatuaren bidez eta jariakortasun digitala entrenatuz, datozen soluzio digitalekin batera eboluzionatzeko gaitasuna izateko.

### **5. Modulua           Baliabide pedagogikoak garatzea eta zabaltea**

Bosgarren moduluak, soluzio digitalen erabilera sustatzeko eraginkorrak diren baliabide pedagogikoak eskaintzen ditu. Batzuetan berezkoak izango dira, eta, beraz, hutsetik egin behar dira; beste batzuetan berriz, hirugarrenen baliabideak identifikatzen dira, erreferenteak direnak eta erabiltzeko prest daudenak.

### **6. Modulua           Produktu eta zerbitzu digitalen diseinu sozialean laguntzea**

Seigarren eta azken moduluak profesionalekin, enprekin edota administrazio publikoekin batera produktu eta zerbitzu digitalak diseinatzeko zein garatzeko argibideak eskaintzen ditu. Produktu eta zerbitzu horiek, kontuan hartu beharko dute esku-hartze sozialetan lagundutako pertsonen errealitatea baita esku-hartze hori egiten duten profesionalena ere.

## ZEIN METODOLOGIAREKIN?

Prestakuntza **modu presentzialean** egingo da, guztira **20 saiotan**. Astean bitan, **astearte eta ostegunetan**, 10 astetan zehar. Horrela, ikasleek, prestakuntza eta lanpostuko aplikazio praktikoa konbinatu ahal izango dute, ezagutzak transferitzea erraztuz eta gaitasunak eskuratuz.

## EGUTEGIA, ORDUTEGIA ETA LEKUA

2024ko **irailaren 24tik azaroaren 28ra bitartean**, 20 saiotan zehar (egutegian gorritz), **astearte eta ostegunetan 9:30etatik 13:30etara** izango da, **Donostian** (Nazaret Fundazioa, Aldakonea 36, 20012 Donostia San Sebastián).

iraila-24							urria-24							azaroa-24						
AL	AS	AZ	OG	OL	LA	IG	AL	AS	AZ	OG	OL	LA	IG	AL	AS	AZ	OG	OL	LA	IG
						1		1	2	3	4	5	6					1	2	3
2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10
9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17
16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24
23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31				25	26	27	28	29	30	
30																				

Prestakuntza-saiok

Programa hau Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak diruz laguntzen du % 100ean.

**¡Eman izena eta eraldatu Gizarte Esku-hartzea!**

Klikatu hemen aurrez izena emateko:

<https://forms.gle/PtuvGTsDAs8XrEcR6>

